

@@@IRAGARKIA, Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariaren 2010eko urriaren 13ko Ebazpena jakinarazteko dena. Ebazpen horren bidez, EB2-1791/10-DL zehapen-prozedura ireki zen, XXXXXXXXXXXXXXXX jaunaren kontra; izan ere, azaroaren 10eko 3148/1978 Errege Dekretuaren 56. artikuluan tipifikatutako arau-haustea egozten zaio (dekretu horren bidez, Etxebizitza Politikari buruzko urriaren 31ko 31/1978 Errege Lege Dekretua garatu zen).@@@

Ebazpen hori jakinaraztea lortu ez denez, iragarki hau argitaratzen da, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 eta 61. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Interesduna jakitun jartzeko ematen da aditzera hau, eta harentzat jakinarazpenaren ondorioak izan ditzan. Horretaz gain, honako ohartarazpen hau egiten da:

Interesdunak bost eguneko epea izango du Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan agertzeko eta ebazpenaren eduki osoa aztertzeko (Kale Nagusia 85, 6, Bilbao); eta agertzen denetik hara hamabost eguneko epea izango du, egoki iritzitako alegazio, dokumentu eta informazio oro aurkezteko, frogaldia eskatzeko eta egoki iritzitako frogabideak proposatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 18a.

Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria,
MARIO YOLDI DOMÍNGUEZ.